

Eguneroco Oracioa.

¡Gure Jaun eta Jaungoicoa! Cere nai iza-tearequin beste gabe gauza guztia ece-recetic eguin dituzuna, eta cere jaquin-duriarequin eraondu eta gobernatzen di-tuzuna! Aitortzen degu ez degula gueren aldetican pecatua ta esquergabequeria baicic, eta degun on guztia Zuri zor di-zugula; eta ezaguturic gueren ecerezta-suna ¿nola izan alditeque gu, Ceruac eta Lurra bere gloriaz beteric daucazquian Jaun aundiaren aurrean aguertu eta Be-rari mesedeac escatzea? Ala ere, ain aundia da Zure ontasun neurrigabea eta guganaco onguinaya ecen, artu gaituzu cere semetzat, nai dezu guc Zuri *Aitaren* icen gozoa esatea, eta aguindu diguzu senipartetzat Ceruco gloria. ¿Nola ez de-zu beraz naico gueren premietan gu Zu-gana biurtzea? Uste onetan alderatzen guera bada gaur Zugana, gueren anima-co ta gorputzeco premi gucien erreme-

dio billa; eta adoratzen zaitugularic humiltasun eta errespetoric aundienarequin, jartzen dizugu Bitartecotzat Zure serbitzari leyal Loinazco San Martin glorioso, Zure fede santuagatic bere odola issuri eta bere bicia eman zuana: eta onen bitartecotzat eta merecimentuagatic escatzen dizugu eman dizaguzula batezere Bederatziurren onetan escatzen dizuguna, Zure gloriaraco, Santuaren honraraco eta gure animaren oneraco baldin bada. Amen.

- Ondorengo oracio au egunero aldatu bear da, esanaz egunari dagoquiona.

Lenengo eguneraco

ORACIOA.

¡Oh San Martin glorioso! Euscalerriaren honra eta Jaungoicoaren serbitzari leyal! ¡Ceñ begui onez eta nolaco naitasunarequin beguiratuco cion, gaztechoa ciñalaric ere, Jaungoicoac zure anima bedeincatuari; bada Berac auqueratua

ciñan Japongo lecu urrutietan Jesucristoren icen santua aitortzeko, eta Ebangelio dotriña santuagatic cere odola issurtzeko! ¡Eta cein lur onean erortzen ciran zure biotzean Jaungoicoac ordutandic bialtzen cizquitzun graciac! Gaztechoric ezagutu cenduan cein bearra dan anima salbatzea, eta orregatic ain sarritan galdetu oi cenduan ¡ea salbatzeko cer eguin bear dan? Eguiaz, ecin izan diteque mundu onetan gauza bearragoric anima salbatzea baño ¡Cerbatio du, dio Jesusec Ebangelio santuan, mundu guztia irabazteac ere, anima galduezquero? Ez da aberastasunic, ez aguinteric eta ez beste gauzaric calte ori ordaindu dezaqueanic. ¡Eta ala ere ain arreta guchi izan oi degu, gueren salbacioco lambidean sayatzeko! Irichi zaiguzu bada, Martiri Santua, pensamentu osasungarri au, zuc becela, guc ere maiz gogoan erabiltzeko gracia, gueren bicomodua gueroago ta gueyago zucendu dezagun; baita ere Bederatziiurren ouetan escatzen degun mesedea, Jaungoicoa-

ren gloriaraco, zure honraraco eta gure salbaciорaco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Aita gure*, iru *Ave Maria* eta iru *Gloria*, eta escatzen du bacoitzac San Martiñen bitartez irichi nai duan mesedea.

Eguneroco Oracioa.

¡Oh Jesus maitagarria! gu salbacioco bidean jartzeagatic eta betico zoriontasuna iristeco, nola bici bear degun eracustera, Cerutic Lurrera etorri ciñana! Zu cera, eguiaz, Ceruraco bide zucen eta seguroa, eta bide onetatic aldeguiten ez dutenac ez dira galduco, eta Zure pausoai jarraituaz, Zure legue santuco bidetic dabilzanac irichico dira, secular azquenic izango ez duan zoriontasunera. Emendic ibilli ciran Santuac eta oni jarraituaz irichi zuan aimbeste gloria gure bitarteco San Martin gloriosoac. Beraren merecimentuacgatic, eta Zure antzera gurutzean issuri zuan odolagatic escatzen dizugu jarren! cere graciarequin indartu dezazula gure artean biciró fede santua; sendotu dezazula Ceruco onda-

sunen billa sayatzeco gogo eta esperan-
za; eta iracequi dezazula gure biotzetan
Jaungoicoaganaco eta alcarganaco amo-
rio santua. Eman zayezu ¡Jaun urrical-
tsua! conveni zayoteneraño, pobre ta
beartsuai beren premiac erremediatzeco
bear duten gucia, eman zayezu eriai osa-
suna, pecatariai Zugana biurtzeco gra-
cia, illtzeco zorian daudenai laguntza in-
dartsu bat, beren animac salba ditzaten,
eta, azquenic, purgatorioco anima be-
deincatuai betico descansua: onela Zure
borondatearequin beti gurea bat egui-
ñaz, zorionecoac izan gaitecen guero Ce-
ruan. Amen.

Bucaera emango zayo egunero azquenean dau-
den itz-neurtuacquin, eta ayen ondorengo oracioa-
requin.

Bigarren eguneraco

ORACIOA.

—
¡Oh San Martin glorioso! Esquerrac
eta alabanzac ematen diozcagu doai gu-
cien emalle gure Jaungoicoari, cergatic

mundu galgarriac Jauna benetan serbitu
nai dutenai jarri oi dizcaten lazoac eza-
gutzeco dembora baño ere lenagotic
gorde cinduan bere graciarequin, eman
cizun gauza santuetaraco eta birtuteraco
grña aundi bat, deitzen cizularic, beste
aldi batez Aaroni becela, Beraren mi-
nistro santu bat izateco. Ezagutu cen-
duan, bai, artean gaztechoa baciñan ere,
cein honra aundico gauza zan Jesucris-
toren gorputza consagratu, pecatuac bar-
catu eta lagun urcoen animac Cerura-
bidean zucentzeco berecia eta escogitua
izatea; baña baita ere ezagutu cenduan
nolaco jaquinduria, animaco garbitasu-
na, caridadea eta beste birtuteac izan
bear dituan cargu onen eguinquizunai
arpegui emango dienac. Orregatic aim-
beste sayatzen ciñan zure anima garbia
gueyago ta gueyago prestatzen, egunen
batean sacerdote santu bat izateco. Or-
duan Jaungoicoac eguin cizquitzun me-
sedeacgatic escatzen dizugu irichi diza-
guzula Jaunaren dei amoriozcoai ondo
erantzuteco, eta bacoitzac bere estaduco

eguinquizunac bear becela cumplitzeco gracia; baita ere Bederatziurren onetan escatzen degun mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco, zure honraraco eta gure salbadoraco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Aita gure, etc.*

Irugarren eguneraco

ORACIOA

— — —
¡Oh San Martin glorioso! Ceñ ejemplo ederra eman ciguzun, emeretzi urterequin mundu engañagarri au utzita conventu batean sartu ciñanean! Esqueintzen dizquigu munduac, bera serbitzeagatic, iraupen aundiric ez duten honrac, atseguñac eta aberastasunac. Eta esqueintzen digun guztia emango baliguque ere, ¡cembat demboraraco izango litzaque? Luzaroenez ere eriotza etorri arteraño; bada ill ezquero, ez dute balio gauza oyec guztia. Jaungoicoac berriz, Bera serbitzeagatic, mundu onetan laguntzeaz gañera eman nai digu beti iraungo duan zoriontasuna Ceruan.

¡Eta cein obeto serbitu guenezaque, orretaraco eguin gaituana eta onelaco saria eman nai diguna baño? Au ongui eazguturic, erabaqui cenduan mundu galdua utzi ta Aita San Franciscoren ordenan, portu seguruan becela, sartzea, Asisco Serafin onen pausoai jarraitzeco, berac Jesusenai jarraitu cien becela. Orduan Jaunari eman ceñion atseguñagatic escatzen dizugu, irichi dizaguzula gu ere mundu onetaco losenchac alde batera utzi ta, Jaungoicoaren legueco bide-tic beti zucen ibiltzeco gracia; baita ere Bederatziurren onetan escatzen dizugun mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco, zure honraraco eta gure salbaci-raco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru Aita gure, etc.

Laugarren eguneraco

ORACIOA

¡Oh San Martin gloriosoa, Ebangelio santuaren jarraitzallea eta Aita San Franciscoren imitatzalle cintzoa! ¡Nola etzen-

duan zuc Jaungoicoaren graciarequin aur-
rreratuco bertuteco bidean, baldin beti
gogoan bacerabilzquitzen Jesusen esa-
nac «Ceruetaco erreinua indarrez artzen
dala, eta bere buruari gogor eguiten ez
diona, ez dala an sartuco: Jesusen on-
doren jua nai duanac, ucatu bear dua-
la bere burua, eta bere gurutzea arturic,
jarraitu bear diola Jesusi?» Pensamentu
oyequin pizcortzen cenduan cere anima
penitenciaric gogorrenac eguiteco, eta
eguiten cenduana baño ere gueyago zan
eguin nai cenduqueana, Cerua irabaz-
teagatic. Eta guc, aimbeste pecatu eguin
arren ¿uste degu cerua irabaztea eroso
bici ta, penitenciaric eguin gabe, eta gu-
re griña gaiztoac ecitzen sayatu ere ga-
be? ¡Oh cer ichumena gurea! Santuac pe-
nitenci aundiac eguin ta ere, bildurrez
bici dira, betico galduco ote diraden ¿eta
gu, pecatari aundiac, ardura gabe bici-
co guera, Cerua seguraturic baguendu-
caque becela? Irichi zaiguzu bada, ¡oh
Santu Martiria! gueren pecatu gucien
eguiazco penitencia eguiteco bear degun

laguntza eta gracia; baita ere Bederatzien onetan escatzen degun mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco, zure honrarako eta gure salbaciuraco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Aita gure, etc.*

Bostgarren eguneraco

ORACIOA,

— —

¡Oh San Martin glorioso! Baldin ain gaztetatic senti bacenduan ceregan, animac Ceruraco irabazten lan eguiteco deseo santua ¡cembateraño aci eta eta gueyagotu ote zan deseo au bera zure biotzean, ordena sagraduac eta ayequin batera Jaunac eman cizquitzun gracia baliotsuac artu cenituanean, eta cere burua Jaungoicoaren ministro eguiñic icusi cenduanean? ¡Nore esan cein iracequia zan orduco zure zelo santua? ¡Cembat bider esquintzen ceñion cere odola eta cere bicitza Jaungoicoari Beraren icen santua ezagutua eta honratua izan cedin mundu guztian? Baceñequizun Jaungoi-

coaren Semea Guizon eguin zala eta Cerutic lurrera etorri zala animac salbatzeagatic; eta sacerdote eguin ciñan ezquero, etzenduan beste gauzaric aimbeste deseaten nola Jesusen laguntzalle izatea lambide onetan. ¡Eta cein gogonez eta nolaco atseguinarenquin ontzat artuco cituan Jaungoicoac zure deseo bici oyec! Esca zayozu bada, Jaunari ¡oh gure Bitarteco aundia! eman dizagula guri ere gueren animac eta beste gucienac salbatzeco deseo iracequi bat; baita ere Bederatziurren onetan escatzen degun mesedea, Jaunaren gloriaraco, zure honraraco eta gure salbacioreaco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Aita gure, etc.*

Seigarren eguneraco

ORACIOA:

—
¡Oh San Martin glorioso! Aundia izan bear du mundu onetaco neque eta naigabeen balioa, Jaungoicoagatic eramaten diranean. Santu guciac maitatu izan

dute gurutzea, eta cergaticbait Salbatza-
lleac ere esanic utzi cigun, gurutzea ar-
tu ta Berari jarraitzeko. Jaquiñic zuc
cein oparo pagatu oi duan Jaungoicoac
Beragatic eguiten eta sufritzen dana, et-
ziñan contentatzen cere gorputz inocen-
tea diciplina ta cilicio gogorracquin eta
beste era ascotan penatzearequin; baici-
can onezaz gañera cere erregu eta ora-
cioetan escatzen ceñion Jesusi jarren!
parte emateco Beraren gurutzean. Ez
da, ez, bide laburragoric eta seguruago-
ric Santu izatera irichi nai duanarentzat.
Gurutzea da Ceruco atearen guiltza, eta
siñale charra izan oi da, Jaungoicoac
bialtzen dizquigun gurutze eta eram-
quizunac ontzat ez artzea. Eguin ezazu
bada ¡oh Santu bedeincatua! eguin eza-
zu modua gu ceruco graciarequin indar-
tzeco, Jaungoicoac bialtzen dizquigun
gurutzeac eta emengo eramankizunac
Beraren escutic etorriac becela ontzat ar-
tu ditzagun, eguiñaz beti Bere boronda-
te santua; baita ere irichi dezagula Be-
deratziurren onetan escatzen degun me-

sedea, Beraren gloriaraco, zure honraraco eta gure salbacioreaco baldin bada. Amen.

Emen errezatuko dira iru *Aita gure, etc.*

Zazpigarren eguneraco

ORACIOA.

¡Oh San Martin gloriosoa! Noizbaitere asi ciran cumplitzen, Jesusengatic sufritzeco cere dembora guztian izan cemituban deseoac! Gure Salbatzalle onec gugatic igarotaco neque eta naigabe aundien gañean pentsatzen jartzen ciñan ba-coitzean, eta icusten cenduanean cein amorio gartsua aguertu cigun bere bicitza santuco pauso gucietan, eta batez ere ill bear zuan aurrean; zure biotza irace-quitzen zan Jesusenganaco amorioan, eta aguertu nai zuquean bere esquer ona, alcezaquean gucia Beragatic eguiñaz eta sufrituaz. ¡Eta cein gogo onez sayatzen ciñan Japongo erriric aundienetan Jesusen icen santua adieracitzen,

eta Beraren Evangelioa leguepean jartzan alcenzaquean anima guciac! Etzan besteric bear perseguitua izateco eta erriz erri burla eta desprecioen artean erabiltzeco. ¡Cer calte ordea eguin alcezaqueten persecucioac zure biotz bildurgabea jaquiñaren gañean baceunden Jesucristoren esanaz «Zorionecuac dirala justiciagatic persecucioa padecitzen dutenac, cergatic ayena dan Ceruetaco erreino?» Irichi zaiguzu Jaunaren gracia beñere lotsatu ez gaitecen Jesusen escolacoac izateaz eta Beraren legue santua gordetzeaz; baita ere Bederatziturren onetan escatzen degun mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco, zure honraraco eta gure salbadoraco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru Aita gure. etc.

Zortzigarren eguneraco

ORACIOA.

— — —
¡Oh San Martin gloriosoa! Ondo nombait zu alde guztietara Beraren antzekoa

izatea nai zuan Jesus maitagarriac, bada-
azquenean ere nai izan zuan gurutze ba-
tean Beraren antzera zu ere illtza! ¡Eta
cer poza zurea, jaquin cenduanean, Tai-
cosama, Japongo Emperadore odolgui-
roac eman zuala zu eta zure lagunac gu-
rutzean lantzaz josiric illtzeco sentencia!
¡Cein bildur guchirequin eracusten cen-
duan Jesusen leguea igarotzen ciñan to-
qui gucietan, ill bear cenduan lecura
irichi arteraño! ¡Nore esan nolaco poza-
requin laztandu cenduan cere gurutzea,
Ceruco ateac iriquitzera cijoaquizun guil-
tza becela zalaco? ¡Eta cer sentitzen ote
zuan zure biotzac, cere burua, Jesusen
imagiña bici bat eguiñic, gurutzean Ce-
ruaren eta Lurraren bitartean icusi cen-
duanean! Orduan Jaunac eman cizun
gracia indartsuagatic erregutzen dizu-
gu, escatu dezazula guretzat ere eriotza-
co orduan bear izango degun laguntza,
Jaunari Bere adisquidetasunean eta gra-
cian gueren anima entregatzeco; baita
ere Bederatziurren onetan escatzen de-
gun mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco,

zure honraraco eta gure salbaciadoraco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Aita gure, etc.*

Bederatzigarren eguneraco

ORACIOA.

—
¡Oh San Martin glorioso! ¡Cer dira munduco eramanquizunac eta tormenturic izugarrienac ere, Jaungoicoac bere serbitzari leyalentzat Ceruan prestaturic dauzcan betico atseguin-contentuen aldean? Ez dezu nosqui orain damuric izango, Jaungoicoagatic nequeac igaro eta asco sufritu cendualaco. «Serbitzari on eta leyal, esango cizun, sar zaitez cere Jaunaren atseguin-lecuan.» Bucatu ciran zure nequeac, eta ez du beñere azquenic izango zure zoriontasunac. ¡Nola ez arpeguia atera Jesusec zure alde bere Aitaren aurrean, baldin esanic utzi bacigun «Iñorc aitortzen banau, Nizaz lotsatu gabe, guizonen aurrean, Nic ere arpeguia ateraco det onelacoaren alde nere Aitaren aurrean.» Beraz, zuc

orrembeste badezaquezu Jaunaren aurrean ¿cergatic ez degu izan bear guc confianza osoa zure bitartecotasunean? ¿Guc, zu jayo eta luzaro bici izandutaco alde oyetan bici gueranoc, zuc aurtasunetic icasi eta lenengo itzeguin cenduan itzcuntza bera itzeguiten degunoc? Erregutu ezazu bada ¡oh Martiri santua! Euscalerriagatic, anciñaco fede bician sendo iraun dezan; guciocgatic zure birtuteac imitatu eta zure pausoac jarraitu ditzagun; baita ere irichi zaiguzu Bederatziurren onetan escatzen degun mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco, zure honrraraco eta gure salbaciורaco baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Aita gure, etc.*

Egunero esaten dira azquenean San Martiñen honraraco jarritaco itz-neurtuac, eta bucaera ematen zayo bederatziurrenari antifona eta oracioarequin.

LOINAZCO SAN MARTINEN HONRAN

ITZ-NEURTUAC.

*Zuc Jesusi izan ceñion
Amorioagatic,
Loinazco Martin Santua,
Esca ezazu gugatic.*

Nosqui gure Jaungoicoac,
Zu bialdu cinduan,
Euscal-erriaren honra
Izateco munduan;
Artaraco jayo ciñan
Euscaldun odoletic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Icusi zan lasster asco
Ciñala auqueratua,
Eliz guizon izateco
Jaunac berac deitua;
Bide au artu cenduan
Chit gazte gaztetatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Jaquinduria nai dezu
Birtuteaz batean,
Ardi galduac biltzeco
Jesusen artaldean;

Alcalara juan ciñaden
An icasteagatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Etzaitu, ez, engañatzen
Mundu losenchariac,
Ez dituzu nai beraren
Atseguin galgarriac;
Uzten dituzu emengoac
Gueroco obeacgatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Asisco San Franciscoren
Pobrechoen artean,
Aurreratzen zoaz beti
Biciro birtutean;
Nai cenduque odola issuri
Animen onagatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Mejicon eta Manilan
Cera Maisu habilla,
Lambide au utzirican
Zoaz animen billa;
Japondarrac Jesusentzat
Irabazteagatic,

Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Jesusen icen Santua
Ta beraren leguea,
Non nai adieracitzeco
Cera bildurgabea;
Etzerade nosqui izutzen
Zu tormentuacgatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Taicosama-ren aguinduz
Zaituzte preso sartzen,
Belarri bat mozturican
Erriz erri ibiltzen;
Guztia sufritzen dezu
Pozic Jesusengatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Gurutzean etziteco
Prestaturic zaudela,
Lagunai eguin diezu
Sermoi bat chit ederra;
Etzan, ez, inor bildurtzen
An illbearragatic;
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Bi lanza sayetsetatic
Gogorquiro sarturic,
Gurutzean illtzen cera
Bertan odol-usturic;
Cere bicitza eman dezu
Fede Santuagatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

Orain zu zorionecoa
Cera beti ceruan,
Gu berriz perill artean
Bici guera munduan;
Ecer guchi dezaquegu
Guerenez, eta argatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.

*Zuc Jesusi izan ceñion
Amorioagatic,
Loinazco Martin Santua
Esca ezazu gugatic.*

Ant. Christo confixus sum cruci: imitatores mei estote sicut et ego Christi.

Ÿ. Ora pro nobis Beate Martine.

Ŕ. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus

Domine Jesu-Christe, qui ad tui imitationem per Crucis supplicium primitias fidei apud Japoniæ gentes in Sancti martyris Martini sanguine dedicasti, concede, quaesumus, ut cujus memoriam colimus, excitemur exemplis. Qui vivis.....



GURUTZEAREN BIDEA

itz neurtuetan.

*Gurutze santuaren señaleagatic, etc.
Jesucristo nere Jauna, etc.*

ESQUEINTZA.

Emenchen nator ¡Oh Jesus ona!
Biotz cupituarequin
Galbarioco bidean Zuri
Jarraitzeco asmoarequin.
Consideratu nai ditut ciñez
Zure neque, naigabeac,
Gure onagatic igarotaco
Tormentu paregabeac.

Lanbide onetan nic irabazten
Ditudan indulgenciac,
Penatzen dauden anima ayec
Izan bitzate guciac.
Gurutzearen bide Santu au
Lagun zadazu ibiltzen,
Zure ondoren gu ere noizbait
Ceruan sartu gaitecen.

Amen.





LENENGO GUERALDIA.

*ḽ. Adoratzen eta bedeincatzen zaitut, Cristo,
R. Cergatic cere gurutze santuarequin erre-
dimitu cenduan mundua.*

**Ematen du Pilatosec Jesus illtzeco
sentencia.**

Barrabas bera nayago dute
Libratu Judu gaiztoac,
¡Aimbesteraño itsutu ditu
Cital ayec gorrotoac!
Juezac ere ezagutzen du
Jesusen inocencia;
Baña ala ere illerazteco
Ematen du sentencia.
¿Cer balio du Pilatosentzat
Bere escuac garbitzeac,
Baldin ez badu icaratutzen,
Culpagabea illtzeac?
¿Cer balio du guretzat ere
Engañatzeac mundua,
Nagusituric arquitzen bada
Biotzean pecatua?

ḽ. Damu det, Jauna, Zu ofenditua.

R. Urrica! zaitetz nizaz.

Aita gurea, Ave Maria eta Gloria.



BIGARREN GUERALDIA.

Ÿ. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

Artzen du Jesusec gurutzea.

Beguiria nola daramaquiten
Jesus maitea illtzera,
Pecatariac salba gaitecen
Bere odola issurtzera.
¡Oh ceiñ gogotic artutzen duan
Sorburuan gurutzea!
Ez du gogoan beste gauzaric
Baicic danac salbatzea.
Gaizguilleren bat balitz becela
Dijoa gurutzepean,
¿Eta ez guera urricalduco
Jesus ala icustean?
Eraman zagun guc ere gogoz
Gurutzea emen munduan,
Berdiñ au gabe, ecin gaitezque
Inolaz sartu Ceruan.

Ÿ. *Damu det, etc.*—R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



IRUGARREN GUERALDIA.

ŷ. *Adoratzen eta, etc.*

Ṛ. *Cergatic cere, etc.*

Emen erori zan Jesus lenengo aldiz.

— — —
Gurutzearen cargac lurrera
Ezarri du Jesus ona,
¡Aimbesteraño cargaturican
Cijoan Jainco-Guizona!
Ceru ta lurrac ecerezetic
Erraz eguin cituana
¡Ausse bera da argaldurican
Orain lur jotzen duana!
Iriqui itzatzu cere beguiac
¡Oh pecatari itsutua!
¿Cerc uste dezu bota duela
Modu orretan Justua?
Ez uste dala beste gauzaric;
Bacarric da pecatua:
¿Ala ere ez degu damu izango
Jaun ori ofenditua?

ŷ. *Damu det, etc.*—Ṛ. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



LAUGARREN GUERALDIA.

ŷ. *Adoratzen eta, etc.*

ñ. *Cergatic cere, etc.*

Jesusec bere Ama topatzen du.

— — —
Jesusec eta beraren Amac
Galbarioco bidean
¡Cein pena aundia izango zuten
Batac bestea icustean!
¡Ama gozoa! ¡Nola egongo zan
Zure biotza orduan,
Cere semea ala icusita
Negargarrizco moduan!
Borrero eta soldadu asco
Dijoazquo inguruan,
Berac darama gurutzea ta
Coro gogorra buruan.
¡Oh Virgiña-Ama dolorezcoa!
Zure pena aundi onengatic,
Eguin ezazu bitartecotza
Gu pecatariocgatic

ŷ. *Damu det, etc.*—ñ. *Urrical, etc.*

Aita garea, etc.



BOSTGARREN GUERALDIA.

†. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

**Simon Cirineoc laguntzen dio Jesusi
gurutzea eramaten.**

¡Nola juango zan Salbatzallea
Bide penagarri artan,
Judu gogorrac etsitzeraco
Ilco citzayela an bertan!
Bidez cetorren guizon bat lagun
Bear izan diote eman,
Icusirican ecin duela
Bestela carga eramán.
Alaco iguya ta gorrotoa
Artu diote Jesusi,
Ecen lembaitlen iltzez josita
Iltzen nai dute icusi.
¡Oh cembat bider carga Jesusi
Guc arindu bearrian,
Pecatuacquin are gueyago
Jartzen diogu gañean!

†. *Damu det, etc.* — R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



SEIGARREN GUERALDIA.

ŷ. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

**Veronicac arpeguia garbitzen dio
Jesusi.**

Icerdi, chistuz eta odolez
Arpeguia ciquinduric,
Cijoan Jesus bide onetan
Arras ichura galduric.
Emacume bat urricaldu zan
Eta zapi bat arturic,
Garbitu cion bere arpeguia
Gende artetican sarturic.
Etzan guelditu paguric gabe
Caridade au ain fiña,
An utzi zion zapian bertan
Jesusec bere imagiña.
Josi ezazu imagiña au,
Jauna, gure biotzetan,
Zuzaz oroitu gaitecen beti
Gueren tentacioetan.

ŷ. *Damu det, etc.*—R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



ZAZPIGARREN GUERALDIA.

Ÿ. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

Bigarren aldian erortzen da Jesus.

Ecín dezaque Salbatzalleac
Pausoric eman aurrera,
Orra non cargac ezarri duan
Bigarren aldiz lurrera!
Azotez oso porrocatua,
Odolic asco galdua,
Ecín egonda iñolaz zutic
¡Ain arkitzen da argaldual
Guc degu culpa, pecatariac,
Berriz erortzen dalaco,
Gu ere sarri pecatuetan
Erori oi gueralaco.
Jaiqui gaitecen bada bertatic
Gueren pecatuetatic,
Jesus onari eguiñalean
Penac arintzeagatic.

Ÿ. *Damu det, etc.*—R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



ZORTZIGARREN GUERALDIA.

Y. *Adoratzen eta, etc.*

R. *Cergatic cere, etc.*

Itzeguiten die Jesusec Jerusalengo alabai.

Biotz oneco personac beti
Izan oi dira munduan,
Lagun urcoaz urricaltzeco
Penatzen dauden orduan.
Jerusalengo alabac ceuden
Negarrez Jesusengatic,
Orduan Jaunac esaten die
«Ez eguin negar nigatic.
Benetan eguin bear dezute,
Bai, ceren buruacgatic,
Bai eta ere seme, alaba
Eta ondorengoacgatic:
Egur ecean au eguin badu
Nere Aitaren justiciac,
¿Cer eguingo du igarrarequin
Arren aserre biciac?

Y. *Damu det, etc.* — R. *Urrical, etc.*
Aita gurea, etc.



BEDERATZIGARREN GUERALDIA.

Y. *Adoratzen eta, etc.*

R. *Cergatic cere, etc.*

Erortzen da Jesus irugarren aldian.

Izarrac eta mundu au bera
Airean dauzcan Jaun ori,
Irugarrengo aldian zaigu
Lurrera berriz erori.
¡Norc orain esan Salbatzalleac
Emen sufritu zuana?
¡Ai! ¡Osticoca darabilquite
Jesucristo gure Jauna!
Lotsagarritzco itzac esanaz,
Nequez alaco batean,
Tiraca golpez jasotzen dute
Farra ta burlen artean.
¡Oh! ¡Cein pisuac ote dirade
Nere pecatu aundiac!
Gorrotatutzen ditut betico
Biotzetican guztia.

Y. *Damu det, etc.*—R. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



AMARGARREN GUERALDIA.

ŷ. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

**Quentzen diozcate Jesusi
bere soñecoac.**

¿Ez alzan asco, Jesus maitea,
Ascan pobre jayotzea?
¿Pobreza amatzen eracusteco
Beti pobre bicitzea?
Zu ceralaric gauza gucien
Eguille, Jaun eta Jabe,
¿Orain nai dezu gurutzean ill
Soñecoric ere gabe?
Cupida gabe tiraca quentzen
Dizquitzute borreroac,
Odolarequin itsatsirican
Ceucazquitzun soñecoac.
Quendu ditzagun pecatariac,
Guc ere soñeco zarrac,
Nola diraden pecaturaco
Oitura ta griña charrac.

ŷ. *Damu det, etc.*—R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



AMAIKAGARREN GUERALDIA.

Ÿ. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

Jositzen dute Jesus gurutzean.

Bildots mansoa gurutzearen
Gañean dute ezartzen,
Oñ escuetan iltze gogorrac
Malluz diozcate sartzen.
An arquitzen da Jesusen Ama.
Icusten dago gucia,
Ez daquit nola penaren penaz
Galtzen ez duan bicia.
Pensatzeco da nola egongo dan
Aren biotz penatua,
Ala icustean burniz josita
Bere Seme maitatua.
Josi ditzala gure biotzac
Jaunaren bildur santuac,
Utzi ditzagun beti betico
Bicio ta pecatuac.

Ÿ. *Damu det, etc.*—R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



AMABIGARREN GUERALDIA.

Y. *Adoratzen eta, etc.*

R/. *Cergatic cere, etc.*

Illtzen da Jesus gurutzean.

Salbatzallea illtzen dago ta
Odol guztia emanic,
Ematen digu Ama Maria
Gure Amatzat azquenic.
Orra non ill dan Jesus maitea
Lapur batzuen erdian,
Jenderic asco beguira dala
Egunaz larrugorrian
Eguin dizquigu guizonarequin
Aitarequico paqueac,
Iriqui ditu ichiric ceuden
Ceruetaco ateac.
¡Paregabeco amorioa
Gure Jaungoicoarena!
Gaizqui eranzun diogulaco
Izan bear degu pena.

Y. *Damu det, etc.* — R/. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.



AMAIRUGARREN GUERALDIA.

ŷ. *Adoratzen eta, etc.*

R. *Cergatic cere, etc.*

**Jachitzen dute gurutzetic
Jesusen gorputz illa.**

Guizon prestu bic gurutzetican
Dute gorputza jachitzen,
Bere Amari contempla dezan
Bertan diote utzitzen.
Beguirazazu ¡Ama nerea!
¡Beguiraz cer arpeguia!
¡Escuac! ¡Oñac! ¡Burua!.. ¡Oh cer
Ichura negargarria!
Zure Semea modu orretan
¿Norc para dizu, Maria?
¡Ai! Ez ibilli galdezca nor dan:
Ni naiz, ni, pecataria.
Guztiz damu det pecatu eguiña,
Erregu ezazu nigatic,
Zure Semeac barca dizadan
Zure erreguacgatic.

ŷ. *Damu det, etc.*—R. *Urrical, etc.*

Aita gurea, iru Ave Maria eta Gloria.



AMALAU GARREN GUERALDIA.

ŷ. *Adoratzen eta, etc.*

R. *Cergatic cere, etc.*

**Sartzen dute Jesusen gorputz illa
obian.**

Quentzen diote noizbait Amari
Negar samiñen artean
Jesus illaren Gorputz Santua
Sartzeco obi batean.
Obi au ere izandu zuan
Limosnaz bestec emana,
¡Oh Jesus! ¡Pobre jayo ta bici,
Pobre lurpetu ciñana!
Esqueintzen dizut nere biotza,
Atoz nigana lenbaitlen,
Nere animaren jabe eguin zaitez,
Sartu zaitez laster emen.
Indazu jarren! mundu onetan
Zu serbitzeco gracia,
Guero bestean izan dezadan
Azquen bagueco gloria. Amen.

ŷ. *Damu det, etc.*—R. *Urrical, etc.*

Aita gurea, etc.

Ama Virgiña Errosariocoaren
BEDERATZIURRENA.

Gurutze Santuaren señaleagatic, etc.

Acto Contriciozcoa.

Jesucristo nere Jauna, Jaungoico ta Guizon eguiazcoa, nere Criadorea, nere Erredentorea, Zu cerana izanagatic, eta cergatic amatzen zaitudan beste gauza guztia baño gueyago, damu det, Jauna, biotz guztitic Zu ofenditua: indazu arren Zu herriró ez ofenditzeco ta Bederatziurren au Ama Virgiña Errosariocoaren honran ongui eguiteco gracia. Amen.

Eguneroco Oracioa.

¡Oh Virgiña Maria, gure bitarteco chit gozo eta biotz biguña! Aita Eternoaren

alaba, Seme Jaungoicoaren ama eta Espiritu Santuaren esposa chit maitea! Zucera Ceruco Ate zorionecoa; ceñagandic datozquigun Jaunaren ondasun guztia, eta ceñaren bitartez aldeguiten degun gaitz guztietatic. Zuc eracutsi ciñion Errosario santuaren devocioa cere serbitzari chit maite Santo Domingo Guzman-goari, zure Seme onaren bicitza, bost misterio pocezcoetan gogoratzen zaiguna, imitatu dezagun, eta gure biotzetan josiric becela egon dedin; eta bost misterio dolorezcoetan adieracitzen zaigun bere Pasio Santuaz ongui balia gaitecen; baita ere gure pecatuen zorra pagatzeco munduco nequeac eramatera animatu gaitecen, zure Semearen pausoai bicitza onetan jarraituaz; bost misterio gloriacoetan adieracitzen zaizquigun beraren eta zure atseguñetan, bestian guero parte izan dezagun. Irichi eguidazu, joh nere Ama gozoa! zure Semeangandic bere bicitza santua imitatzeco gracia, bere Pasio santuco irabaciaz ongui baliatzeco bear dedan prestaera, eta beraren amo-

rioz mundu triste onetaco nequeac eramateco indarra. Irichi eguidazu Errosario santuaren deboto bati dagoquion moduan bicitzeko gracia: eta ontzat artuac izan ditecela Jesucristoren misericordiazco tronuan nere escari eta erreguac, beraren graciac nere animara jachi ditecen; debocio santu onetan azqueneraño iraunda, nere pecatuai dagoquien penitencia eguin dezadan. Amen.

Lenengo eguneraco

ORACIOA.

¡Oh Maria, Virgiña guztiz garbia! ¡Jaungoicoaren Semearen Ama izateco criatura gucien artean auqueratua! Zuc izan cenduan poz aundiagatic, Jaungoicoaren Semea zure errai garbietan guizon eguita cetorrelazco berria San Gabriel Aingueruac eman cizunean, eta humiltasun aundiarequin eranzun cizunean « *Ona emen Jaunaren esclava, eguin bedi nigan zuc esan becela* » eta aurcha San Juan bere amaren sabelean santificatua

izandu zaneco bisita santu artan zure lengusu Santa Isabelec Jaungoicoaren Amatzat ezagutu cinducenean, irichi eguidazu ni beti Jaungoicoaren borondatea eguiteco prestaturic egoteco gracia, izan dedilla AVE MARIA nere biotzeko atseguin bacarra, eta ongui baliatu nadilla Errosario santuaren frutuaz, mereci dezadala nic Jaungoicoac nere anima santificatzea, eta bere misterioen ezagüerizatea, baita ere Bederatziurren onetan zure bitartez escatzen dedan mesedea, Jaungoicoaren honraraco eta nere animaren oneraco. Amen.

Orain errezatzen dira iru Ave Maria Errosarioaren iru modutaco misterioen honran. Guero bacoitzac escatuko dio Jaunari Eliza Ama Santaren premiagatic, eta norc berac, Ama Virgina Errosarioaren bitartez, irichi nai luquean mesede edo favorea.

Eguneroco oracioa.

Jaungoicoac salba zaitzala, ¡Oh Erreguina ta Virgina chit garbia! Maria, nere Jaun Jesucristoren Ama, Ceruco atseguinac ceregan dauzcatzun Paradisoco

járdin zoragarria, arrosa eder usai gozocoa eta pecatuaren arantzaric gabea! Nic alabatzen ta bedeincatzen zaitut, bada Jaungoicoac berac aundizcatzen zaitu, Erregutzen dizut, ¡oh nere Ama gozoa! eman eguidazula zure Errosario santuaren debocioa honratzeco laguntza, beraren frutuaz ongui baliatuko naizan moduan; baita ere zure Semearen misericordia, irichi dezadan betico gloria, ceñean bici dan eta erreinatzen duan dembora gucien demboretan. Amen.

Ondorengo egunetan ásko da bigarren Oracioa aldatzea.

Bigarren eguneraco

ORACIOA.

¡Oh Virgiña chit garbia, Jaungoicoaren Ama ta gure Erreguiña! Zure sabeleco Seme chit maitea jayota, izarrac eta guizonac eta animali centzugabeac ere beren Erreguetzat eta gauza guztien Jaun eta Jabetzat ezagutu ta adoratzen zutela icusi cenduanean artu cenduan

poz aundiagatic; erregutzen dizut, irichi eguidazula misterio oyenganaco debocio aundi bat, eta asmatu dezadala nic nere animaco bicilecua ongui prestatzen, zure Seme chit santua nere biotzean jayo dedin, eta nere eriotzaco orduan izan dezadala nere pecatuen damutasun eguiazco bat, eta presentatu nazazula Jaunaren aurrean, bera Temploan Simeon sacerdotearen besoetan presentatu cenduan becela; eta batezere irichi eguidazu Bederatziurren onetan escatzen dedan mesedea, Jaungoicoaren gloriaraco, zure honraraco, eta nere animaren salbadoraco. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

Irugarren eguneraco

ORACIOA

¡Oh amoriozco Ama, triste daudenen consualoa, eta Siongo gaztelu seguroa, cere eguiazco debotoac beren animaco etsayen bildurric gabe gordetzen dituzuna! Biotz-biotzetic escatzen dizut, nere

premiar erruquituric, izan zaitecela nere laguntzallea, Jaungoicoac zuri eguin cizquitzun besteri ez becelaco mesedeacgatic, eta zure Seme chit santua, galduta irugarren egunean, Jerusalengo Temploan Jaquiñtsuaquin disputatzen arquitu cenduanean artu cenduan poz aundia-gatic erregutzen, dizut irichi eguidazula beragandic nere animaren elsai guztia penitenciarequin menderatzeco gracia; eta alabatu zaitzadala Zu, bear becela, cere Errosario santuarequin, Zu nere bi-tartecoa izatea mereci dezadan; baita ere Bederatziurren onetan escatzen dedan mesedea; onela nere Jaungoicoa bere gloriaco Temploan arquitu dezadan. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria. etc.*

Laugarren eguneraco

ORACIOA

¡Oh Ama alde gucietatic naigabez eta penaz betea! Zure Seme onaren Pasioco demboran penaric aundienen artean

iraupen edo constanciaric miragarriena,
arantza zorrotzen artean arrosa eder bat
becela, eracutsi ciguzuna! Humiltasunic
aundienarequin zure oñetan auspezturic
erregutzen dizut, zure biotz erruquitsuac
artu zuan pena aundiagatic, nere Erre-
dentore maitagarriac agonian sarturic
odolezco icerdia issuri zuanean, Getse-
manico baratzen oracio eguitean; eta
Aita Santo Domingori Errosario santua-
ren debocioa eracutsi ciñiozunean, peca-
tarienganaco aguertu cenduan biguñta-
sunagatic, eman eguidazula nere peca-
tuen damutasun eguiazco bat, pecatua-
ren zanzurañoco gucia beti gorrotatuco
dedan moduan; conformatu nadilla gau-
za gucietan Jaunaren borondate santua-
requin, eta irichi dezadala Bederatzi-
urren onetan escatzen dedan mesedea,
beraren gogocoa eta nere salbaciорaco
conveni dana baldin bada. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

Bostgarren eguneraco

ORACIOA.

¡Oh Virgiña Maria, misericordiazco Ama! Jaungoicoaren ondasunen zabaltzallea, eta gure erreguac aditzeco eta premiaco erremediatzeco Jaunac auqueratutaco Templo Santua! Nic biotz-biotzetic deitzen dizut, ¡oh Ama chit gozoa! eta zure paciencia miragarriagatic, eta zure Seme eta nere Erredentore culpa-ric gabea azotez gogorquiró urraturic eta arantzaz coroaturic icusitacoan zure biotz biguñac artu cituan pena aundiacgatic escatzen dizut beragandic irichi eguidazula nere grña gaiztoac menderatzeco, eta nere bicimodua zucentzeco gracia, eta nere premia gucien erremedioa, batezere Bederatziurren onetan escatzen dizudana; eta eguin nazazula Errosario chit santuaren deboto eguiazco bat, onen bitartez irichi dezadan Zu nere laguntzalle izatea bicitzan eta eriotzaco orduan. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

Seigarren eguneraco

ORACIOA:

¡Oh nere Jaun Jesucristoren Ama dolorezcoa! Josueren ezcutarmac becela Salbatzallearen Gurutzeco misterio aundiac gogoratzen dizquigutzuna! Zure amparoaren itzala cere deboto guciengana eriotzaco orduan zabaltzen dezun Arbolla bedeincatua! Zure Seme ta nere Erredentorearen Pasio ta eriotza gogorrarequin esan al baño gueyago naigabez eta penaz betea! Guizonenganaco dezun caridade iracequiagatic, eta Jesucristo nere Jauna gu salbatzeagatic gurutzean ill zanean, Zuc gurutzearen oñean igaro cinducen pena aundiacgatic, humiltasunnic aundienarequin escatzen dizut, ill nadilla pecatu dan guciraco, eta nere grña gaiztoac gurutzeari josiric bici nadilla; eta zure doloreen eta zure Errosario chit santuaren frutuan parte izan dezadala, eriotza on bat iristeco Zu ordu artan lagun zaitudala; baita ere Bederatziz-

urren onetan escatzen dedan mesedea,
Jaungoicoaren honraraco eta nere ani-
maren oneraco. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

Zazpigarren eguneraco

ORACIOA.

¡Oh Virgiña Maria, pecatarien igues-
lecu! Zugan, Sinaico mendian becela,
Jaunac eracusten dizquigu arguiró gure
erredencioco misterio gloriosoac; Zugan
Ezequiel Profetaren carro artan becela,
escogituai aguertzen die Ceruco Erre-
gueac bere gloria eta aunditasuna! Nic,
¡oh gure Ama chit maitagarria! criatura
gucien icenean aitortzen det, gure atse-
guñ gucia zugatic deguna, gure erre-
dencioco bitartecoa cerana, eta gure zo-
riontasuna zugandic datorquiguna: eta
escatzen dizut zure fedeagatic, eta zure
Seme chit santua piztuta aguertu citzai-
tzunean, eta gloriáz beteric Ceruetara
igotzen icusi cenduenean artu cenduan
poz aundiagatic, fedea biciró gorde de-

zadala, eta Errosario chit santuaganaco debocioaren frutua senti dezadala; baita ere azquenic, irichi dezadala Bederatzirren onetan escatzen dedan mesedea Jaungoicoaren honra ta gloriaraco eta nere animaren oneraco. Amen.

Emen errezatzen dira iru *Ave Maria*, etc.

Zortzigarren eguneraco

ORACIOA.

¡Oh Maria, Virgiña biotz beraduna! Bildur onaren, amorio ederraren eta esperanza santuaren Ama miragarria: Profetaen, Apostoluen, Jaquintsuen eta Santu guztien eracuslea; Daviden Torrean cincilica ceuden milla ezcutarma ayen antzera, cere debotoentzat Errosario santuaren Ave Mariac eta cere graciac beti prestaturic dauzcatzuna!

Espiritu Santua Zugana eta Apostoluen gañera suzco mingañetan jachi zanean artu cenduan poz aundiagatic, eta orduan cere biotzean eduqui cenduan caridade iracequiagatic, erregutzen dizut,